

## Osasun publikoa gaixo dago

EAEko osasun publikoko langileek lehengo astean hainbat mobilizazio egin zituzten gizartearentzat oinarrizkoa den zerbitzu honetan baldintza hobek eskatzeko. BAMEkoen –barruko mediku egoiliarren, gaztelaniaz MIR– gatazka egun batzuk lehenago amaitu zen. Hau guztia osasun publikoa duela urte batzuk esaten zen bezain eredugarria ez den seinale da. Zerbitzuen eskaera izugarri igotzen ari da. Azpiegitura asko zaharkituta geratu dira. Duela bi hamarkada zaintzen zen biztanleria kopuru bera zaintzen da gaur egun, baina ospitaleetan %22 ohe gutxiago dago, batez besteko egonaldi-denbora gutxitu egin delako. Era irrazionalean hazi dira guardiak. Langileek gehiegizko tentsioa dute beren jardueretan eta arretaren kalitateak okerrera egin du. Ospitaleetako larrialdietan kolapsoak sortzen dira, hauetara geroz eta maiztasun gehiagorekin joaten baitira gaixoak, lehen mailako arretan izaten diren atzerapenez gogaituta. Egoera hau aldatzeko, inbertsio handia egitea beharrezkoa da. Inguruko herrialde europarretan dituzten BPGen (Barne Produktu Gordina) portzentejetera heldu beharko genuke. EAEko osasun publikoko gastua, BPG kontuan hartuta, %4,2an dago; Espainiako Estatukoa, aldiz, 5,7an eta Frantziako Estatukoa eta Alemaniakoa, %8an. Gastu publikoan lehentasunak ezarri behar dira. Adibidez, osasun publikoak baino diru gehiago jasotzen du EITBk. Gainera, sozietateen gaineko zergak gutxitzen jarraitzen dute, eta esango dute ez dagoela dirurik osasunean inbertitzeko. Ezta beste giza zerbitzuetan ere! Politika neoliberalaren ispilu da.

Juan Mari Arregi

## D eredu eske Ezkaba eskola

**ANTSOAINGO** Ezkaba ikastetxean A eta D ereduan diharduten haurren gurasoek 80 sinadura aurkeztu dituzte Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailean. Gurasoek Iruñeko Txantrea auzoko Doña Mayor de Navarra ikastetxean D ereduia jartzea eta Antsoainen A eta D ereduak eskainiko dituen beste eskola bat irekitzea eskatu dute. Hezkuntza Sailak eskola berria Txantrea auzoan irekitzea erabaki du eta A eta D ereduak eskaini ordez, A eta British deiturikoa izango ditu.

## EHUren euskara plana

**ERREKTOREAK,** Juan Ignacio Perez Iglecias, Euskararen Plan Gidaria aurkeztu berri du. Helburu nagusia euskara egunerokolan tresna bihurtzea da. Helburu zehatzagoak hauek: 2012. urterako irakasleen %43 elebidunak izatea, bi ikasturte barru graduoko ikasgai guztiak euskaraz eskaintzea eta Administrazio eta Zerbitzuetako jendaurreko langile guztiak euskaldunak izatea. Juan Ignacio Perez Igleciasen esanetan, helburu guztiak betetzeko modukoak dira.

## BAHEA

**Geoffrey K. Pullum hizkuntzalariak [gipuzkoacuskara.net-en](http://gipuzkoacuskara.net-en) (Language Log web gunean jatorrizkoa) esanak:** “Australiako Indigenen Galetarako ministro Mal Brough-ek adierazi zuenez maiatzaren 24an, Australiako gobernuak “plan bat antolatzen ari da guraso aborigenei gizarte laguntzak murrizteko, era horretan haurrak eskolara bidali eta ingelesez ikastera beharturik egon daitezten”. Australiako jatorrizko hizkuntza miresgarriak lehendik ere arrisku bizian eta kinka larrian egongo ez balira bezala. Brough kezkaturik dago eskualde bakartuetan aborigen batzuk “soilik beren hizkuntzaz mintzatzeko gai direlako, askotan 200, 300 edo 400 lagunek besterik ez dakiten hizkuntzan”. Hau da: hizkuntza horiek muga-mugan daude, bidean aurrera egin ahal izateko hiztun kopuru gutxienekoa galtzeko zorian. Beraz, asmoa da jende horri gizarte laguntzak kentzea gehiengo menderatzailearen hizkuntza ez ikasteagatik. Australia ez ote da inoiz aldatuko?”

**Txapela**  
buruan  
ta ibri munduan

**Narrika, 18. Donostia**  
telf. 943428299 [www.txapelaburuan.com](http://www.txapelaburuan.com)

